

Erf.: Plan Orokorra aldaketa. 4 1 29 behin betiko  
Espediente zk.: 15/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

Plan Orokorraren 4.1.29.2 artikuluari paragrafo bat gehitzeko, Plan Orokorraren ordenantzearen aldaketa behin betiko onartzea.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Ofizioz.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Lehenengoa: 2014ko uztailaren 18an, Udal Osoko Bilkureak, Plan Orokorreko 4.1.29.2 artikuluari paragrafo bat gehitzeko, Plan Orokorraren ordenantzearen aldaketaren hasierako onespina erabagi eban.

Bigarrena: Hasierako onarpenaren erabagia jendaurrean jarri zan eta ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hirugarrena: 2014ko azaroaren 27a, Udal Osoko Bilkureak, behin behineko onespina emon eutson.

Laugarren: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak aldaketaren aldeko erispina emon eutson.

#### **b) Oinarri juridikoak**

Lehenengoa: Plan Orokorra aldatzeko jarraitu beharreko prozedura dala eta, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, honakoa xedatzen dau:

104. artikuluan: "Hirigintza-planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan-mota berbera erabili beharko da, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da. (...)".

90. Artikuluan, hauxe jasotzen dau:

“5.– Udalak hasierako onespina emango dio plan orokorrari, eta ondoren, jendaurrean jarriko du, udalerriari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkariak edo egunkarietan argitaratuz. Plana hilabetez egongo da jendaurrean, azken argitalpenetik kontaktzen hasita. Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onespinen berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten; (...).

6.- Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartu du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespina eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin – behingo onartu aurretik”.

## 91. artikuluan:

“1.- Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan; kasu bietan, Euskal Autonomi Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du aurretiaz.

2.- Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomi Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio. Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez.

3.- Batzordeak plana jaso eta hiru hilabete epean txostena eman ez badu, aurrera egin ahal izango du izapideekin. Plan orokor bat ezin izango da behin betiko onartu, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena eman ez badu edo hori egiteko epea amaitu ez bada. Manu hau bete gabe onartzen diren plan orokorrak erabat deusezak izango dira. Alabaina, txostena epez kanpo ematen bada, ez da nahitaez kontuan hartuko plana behin betiko onartzeko orduan”.

**Bigarrena:** Quorumari jagokonez, Toki Erreginena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 47. artikulua honakoa xedatzen dau:

“1. Los acuerdos de las corporaciones locales se adoptan, como regla general, por mayoría simple de los miembros presentes.(...)

2. Se requiere el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de las corporaciones par a la adopción de acuerdos en las siguientes materias:

(...) II) Los acuerdos que corresponda adoptar a la corporación en la tramitación de los instrumentos de planeamiento general previstos en la legislación urbanística.”

Beraz, Plan Orokorra behin betiko onartzeko, Osoko Bilkurearen gehiengo osoa beharko da.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2015eko abuztuaren 31n

Karmele Muñoa Arrigain  
Jarduneko Idazkaria